

## 2012ko San Pankrazio eguneko txapelketa ezberdinetan giro paregabea!!

2012/05/14

Pasa den ostegunean, Maiatzak 10, San Pankrazio eguna ospatu zen MUko Goi Eskola Politeknikoko fakultatean, Arrasaten. Urtero bezala, goizean zehar ekintza ezberdinak antolatu ziren MUko Kirol Zerbitzuaren eskutik.

Alde batetik, 3x3 saskibaloia txapelketa eta langileen arteko Areto Futbol txapelketak izan genituen Iturripeko kantxetan. Bestalde, unibertsitateko kantuan, Mus eta Partxis txapelketak jokatu ziren. Parte hartzaile guztien artean giro polita izan genuen eta goiz atsegina pasa genuen eguraldi eguzkitsua lagun.

Saskibaloia txapelketan, 8 taldek hartu zuten parte; Areto Futbol txapelketan langileek osaturiko 4 taldek, Mus txapelketan langile eta ikasleek osaturiko 14 bikote eta azkenik, Partxis txapelketan 2 bikotek hartu zuten parte.

[Emaiza eta txapeldunak ikusteko, sartu hemen](#)

